

Pisu historiko handiko dokumentalak

Bastero Kulturguneak zeresan handia eman duten bi dokumental iragarri ditu, datozen egunetarako. "Non dago Mikel?" martxoaren 19an, eta "Ez, eskerrik asko" 23an / 16



Jabekuntza Eskolak aurkeztu dituzte Andoainen eta Urnietan, datozen hilabeteetarako / 6



Andoaingo feminismoaren hurrengo urratsak, martxoaren 8a igaro eta gero / 2-4



Erronka handietarako prest

Mikel Iturria Kataluniako Voltaren eta Euskal Herriko Itzuliaren atarian / 10-11

DESKONTU
PAREGABEAK!

ALTZARIAREN AZOKA URNIETAN



MARTXOAK 22-28

Ordutegia: 9:30-13:00 / 16:00-19:30.
IGANDEAN, 10:00etatik 14:00etara.



JARRAI GAITZAZU!
#muebles_iturbe



Igarategi Industrialdea 70
(Hernaniranzko tren-geltokiaren
errepidea) 20130 URNIETA

M. 688 632 191 T. 943 552 750

mueblesiturbe.com

iturbe

SUKALDEA, ETXEA & DEKORAZIOA



Andoingo Asanblada Feministako kideak, ezker-eskuin: Ane Otamendi, Maialen Mujika eta Ainhize Urkola. AIURRI

“Ez ditugu azaleko gauzak aldatu behar; errora joan behar da”

ANE OTAMENDI, MAIALEN MUJIKA ETA AINHIZE URKOLA ASANBLADA FEMINISTA Hausnarketak, kontraesanak, bidegabekeriak, intimitatea eta sufrimendua. Besteak beste, horretaz guztiaz hausnartzeko topalekua da Andoingo Asanblada Feminista

Alba Cabrera Jauregi ANDOAIN Nerabeetatik hasi eta helduetara bitarte, herriko emakumeen harremanak ehuntzen dituen espazioa da: Andoainen eragiteko bai, baina, batez ere, nork bere burua ahalduntzeko. Maialen

Mujika, Ane Otamendi eta Ainhize Urkola taldeko kideak dira. **Andoingo Asanblada Feministako kideak zarete. Azaldu apur bat zuen tokia eta funtzioa herrian.** **Ainhize Urkola:** Herrian bertan, mugimendu feministari dagokio-

nez, duela hiru bat urte sortu zen taldea da asanblada, hain justu, hainbat herritarrek feminismoa ardatz hartuta antolatze-ko beharra ikusi zutenean. Urtez urte, askotariko ekimenak egiten ditu asanbladak: besteak beste,

Martxoak 8ko antolakuntza, eraso-aurkako erantzuna, formakuntzak, barrura begirako espazioaren lanketa... Alabaina, azken boladan ikusi zen gabezia bat zuela taldeak, alegia, ez zituela gazteak erakartzen.

Maialen Mujika: Hori da. Adinari dagokionez, jende heldua ere bada taldean. Ondorioz, beharbada, nerabeak ez ziren 50 urteko jendearekin bere arazoez hitz egitera ausartzen, edo, behintzat, barrura begirako testuinguru batean sartzen.

A.U.: Horrela, ez zegoen lekukotza ematerik, eta behar horretatik abiatuta sortu zen Trakata talde feminista, orain urte bete, gutxi gorabehera. Beste behar batzuk zituztela ikusi zuten, baita ahalduntzeko lehen espazio baten premia ere. Aberasgarria izan liteke nerabeak eta helduak elkarlanean aritzea; beste zenbaitetan, oster, nahia- go du nork bere prozesua eta lanketa egin.

Ane Otamendi: Trakak bat egiten du Euskal Herrian dagoen Neska* Gazteak plataformarekin.

M.M.: Hala, urteko egun jakinetan elkarlanean aritzen gara. Baina beste hainbat kontutan asanbladak hartzen ditu bere gain ardurak, beharbada, nerabeei ez dagokielako horien erantzukizuna.

Martxoaren 8aren biharamunean gaude, pandemia beteetan. Andoainen, manifestazio jendetsua izan zen

iragan astelehenean eta zuek zaudete horren atzean. Zaila izan al da antolatzea? Zein aurreikuspen egiten zenuten?

A.O.: Nik, pertsonalki, jende askoz gutxiago espero nuen. Hala, poz handia hartu genuen hurreraturako jende-kopurua ikustean. Herriaren partetik erantzuna ikusteak indarra ematen dizu.

M.M.: Pandemia garaian, beldurra izan da nagusi. Horrez gain, iragan urteko martxoaren 8ko manifestazioarekin lotu zen, estuki, pandemia. Beraz, bazen beldurra, protesta egiteko beste hainbat motiborekin agertu ez zena. Baina jendea bertaratu zen, eta asko poztu gintuen horrek.

A.U.: Oso argi genuen mobilizazioa egin, egin behar zela; eta egingo genuela. Egia da aurtengo, azken urtetako egitarauarekin alderatuz gero, bestelakoa izan dela. Besteetan, hainbat emakumeen arteko harremanak sendotzeko; argi zegoen, ordea, aurtun horiek ezinezkoak zirela. Manifestazioa neurriak betez egin genuen, eta oso ondo errespetatu zituen jendeak.

Euskal Herriko Mugimendu Feministaren lelo nagusiarekin egiten den bat: “Dena aldatu, sistema arrakalatu”. Zeri egiten diozue erreferentzia “dena” diozuenen? **A.U.:** “Dena” hitzak berak dioen bezala, guztiari egiten diogu erreferentzia: sistemari bere txoko eta adar guztietan. Gure egunerokotasunari, oro har, gizarteari, baita hori osatzen duten erakundeei ere. Ez ditugu azaleko gauzak aldatu behar, errora joan behar da, eta hori guztia aldatu beharra dago.

M.M.: Sinesmen eta gizarte arauak ere bai. Finean, guztia. **Horretan guztian ere Andoingo herria sartuko litzateke, beraz. Zein gabezia ikusten dizkiozue zuen herriari?**

A.O.: Gure herriko beharrak ez dira soilik gurean ematen, hots, inguruko herrietan ere izango dituzte, ziur asko.

A.U.: Hori da. Andoainek ez ditu bere behar propioak. Alegia, ez dugu ikusten Andoainek berak bere berezko gabeziak dituenik; hutsune horiek era orokorrean ulertu behar dira. Gizartearen arazoa da, herriarena baino gehiago.

M.M.: Guk ulertzen dugu, hala ere, testuinguru txikietatik hasi behar dela eragiten; Andoainen

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



ikusten dugu sistemari aurre egiteko premia, eta ez hori bakarrik: gure ingurua kontzientzatu behar da. Beraz, ikusten dugu, oro har, gizartean emandako joera dela, eta Andoain badela, beste hamaika herrirekin batera, gabezia horien erakusle. **Ba al duzue harremanik eskualdeko gainerako talde feministekin?**

A.U.: Ez, baina gure nahia izan da, maiz, herrietako asanbladekin harremana izateka, elkar elikatzeke eta haiengandik ikasteko.

M.M.: Zenbaitetan saiatu gara. Baina kontuak ez du aurrera egin. **Andoaingo Udalak berriki jarri du martxan Jabekuntza Eskola. Zein iritziz duzue horrelako ikastaroez zein taldeez?**

A.O.: Beti da aberasgarria espazioak sortzea emakumeak elkarrekin egoteko. Ez dakit zein puntutaraino duten hitzorduek erantzuna, baina edozein espazio emakumeak bateratzeko, beti da ongi etorria.

M.M.: Eta jende gutxi azalduta ere garrantzitsua da hitzordua burutzea; positiboa da.

A.O.: Oso interesgarria iruditzen zait "Jatorri anitzetako elkargu-

ne multikulturala" saioa. Ez dakit zenbat pertsonen hartzen duten parte bertan. Uste dut ez dagoela ikusgarritasun handirik gure herrian, emakume etorkinen parte-hartzeari dagokionez. Eta talde hori oso interesgarria da. **Aberastasuna ematen al dio zuen asanbladari askotariko adinez osaturik egotea taldea?**

A.U.: Finean, taldea zenbat eta askotarikoagoa izan, orduan eta positiboa izango da guretzat, zentzu guztietan. Baina aniztasun horretan badira gabeziak gurean: jaiotzaz, euskal herritarrek izatea taldekide guztiak, hots, zuriak izatea, esaterako. Aniztasuna beti da positiboa, eta hori kudeatzen jakin behar da: batzuetan, ongi dator bereiztea, beste batzuetan, aldiz, hobe da batera aritzea. Gainera, Andoain Zinema eta Bideo Eskola dago eta kanpotik dator jendea ikastera. Hori dela eta, taldera batu ziren Galiziako bat eta Valentziako bat; oso aberasgarria izan zen bai guretzat, bai eurentzat, zeren herriko jendea ezagutzeko aukera eman baitzuten horrek.

M.M.: Hori ez ezik, nerabeen freskotetasunak ere motibatzen

gaitu. Gauzak egiteko grina pizten digu ikusteak gure atzetik badela jendea.

Antolatutako hitzorduei dagokionez, askotariko jendea gerturatzeko al da zuenera?

A.U.: Martxoak 8a erantzun handiko eguna da orain urte batzuetatik hona. Horregatik, askotariko jendea, elkarrengandik oso bestelakoa ikusten duzu manifestazioan. Baina, ondoren, egutegiko beste egun bat aukeratuz gero, ez dakit hainbeste jende bilduko ote litzatekeen.

M.M.: Politikagintzan, feminismoa modan dagoen joera da, alegia, bultzatu beharreko zerbait legez ulertzen da, horren aurka egitea ez delako politikoki zuzena. Hori dela eta, jende asko biltzen du martxoaren 8ak, baina, benetan, bakoitzaren pentsamendua islatzen duten jarrerak, urtearen gainerako egunetan ageri dira; horietan, jendeak ez dio gaiari jarraikortasunik ematen.

A.U.: Ondorioz, gure nahia da jendeak martxoaren 8an erakusten duen konpromisoa erakustea gainerako egun guztietan.

Nola bizi dute zuen ingurukoek feminismoa?

M.M.: Presentzia duen gaia da gure inguruan. Eta korronte hori begi onez hartzeko joera dago, apur bat politikoki, egun, zuzenena delako. Baina, ondoren, nire kasuan, behintzat, jende asko oraindik ere izutu egiten da feminismo hitzarekin. Benetan kontzientziatua egongo balitz gizartea, talde gehiago egongo lirateke gizontasuna zein maskulinitatea lantzeko eta iraultzeko, besteak beste.

A.O.: Ustez, zuzenki eragiten ez dien afera da askorentzat, pribilegioak medio. Horregatik, jende askok ez du ezer egiten.

Martxoaren 8aren gisako egunetan kalera irteten zarete. Gainerako egunetan jarraikortasunez egiten al duzue lan?

M.M.: Nire ustez, gehiago aritzen gara barrura begira, kanpora begirako ariketan baino. Egia da herrian ezer gertatuz gero, saiatzeko gure horri irtenbidea ematen.

A.O.: Bai, eskakizunei erantzuten saiatzeko gara, publikoki zein pribatuki. Gertatu diren hainbat konturekin gure babesa ematen

saiatu gara, modu batera edo bestera.

M.M.: Gogoratu beharra dago asanbladako kideak emakume boluntarioak garela, elkartzen garenak behar bati erantzuteko. Beraz, kanpora begirako ariketa horretan zerbait egin ez badugu, horren ardura hartu ezin izan dugulako da, ardurez gainera gaudelako. Eta herrian, noizean behin, atxikitzen zaigu guri berez ez dagokigun ardura; azkenean, asanbalda bat gara.

A.O.: Eta gutxi gara, gainera. Arduren banaketan nabari da hori.

A.U.: Beharren arabera elkartzen gara. Zenbaitetan, asteroko jarraikortasunez biltzen gara. Orain, ostera, lasaiago gaude. Gainera, konfinamenduak talde asko kolpatu ditu, gurea, tartean. Martxoaren 8ak erakutsi du beharra dagoela aldaketarako. Horrez gain, azken hilabeteotan herrian emandako erasoek ere azaleratu dute lan handia dagoela aurretik. Benetan gure helburuak lortu nahi baditugu, inplikazioa behar da, herri eta gizarte feminista batean bizitzeko.

Harpidedun izatearen abantailak

Egin zaitez Aiurriko harpidedun eta Aiurriarekin batera, Ikusbera aldizkaria jasoko duzu

Tel.: 943 300 732

idazkaritza@aiurri.eus

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



IKUSBERA
Ezkerreko aldizkaria / 124. zenbakia

Berdinak izan gabe ere berdinak behar genuke





Armendarizek hitzaldia eman zuen Basteron, joan zen ostiralean. AIURRI

Kronika, itsasoaz bestalde

Txileko egonaldiaren ganean mintzatu zen joan den astean Amaia Armendariz, "Emakume gazte bidaiariak" egitasmoa medio: herrialdeaz, bertako gastronomiaz, emakume izateaz eta gizarte istiluez, besteak beste

Alba Cabrera Jauregi ANDOAIN

"Aldaketa bat nahi nuen nire bizian. Beste kultura baten berri izan nahi nuen, jendea ezagutu eta nire egunerokoa aldatu". Hala, sei hilabetez, maletak hartu eta Txile aldera egin zuen salto Amaia Armendarizek orain pare bat urte, hain zuzen, kapitalera, Santiago de Txile hiriburura.

Gizarte Langintza ikasi du andoaindar gazteak eta, bere jakintza-esparruan gizarteko testuinguruak berebiziko garrantzia duenez gero, mugikor-tasun-bekari eutsi zion Ozeano Atlantikoaren beste aldera igartzeko. Aurreikuspen altuekin joan zen Armendariz Txilera, ikasketen zati bat atzerrian egin ohi duen ikasle oro lez: "Gogo handiz nengoen; lagun asko egin, bidaiatu, pixka bat ikasi eta parranda luzeak bota".

Txile kolonialismo europearraren eta kultura indigenaren bateragunea dela dio gazteak: "Esan ohi da, Argentinarekin batera, Mendebaldeko kultura gehien sustraitzen den herrialdea dela Latinoamerikan. Hala ere, komunitate indigenak, eta, batez ere, Maputxe herriak, indar handia du". Hara iritsi bezain pronto ohartu zen euskaldunen oso bestelakoak direla txiletarrak: "Gurekin alderatuz gero, oso irekiak dira, eta oso jatorrak hasieratik. Oso gustuko dute festa, eta kalean egotea dute gogoko, jendearekin biltzea".

Gastronomiari dagokionez, ezustekoa hartu zuen, izan ere, haren iritziz, ez zen oso bestelakoa bertako sukaldaritza. Dena den, edari bereziak probatzeko aukera izan zuen: besteak beste, pisko-a, alegia, bertako des-

tilatua, edota terremoto-a, izozkia daraman edaria.

Barbakoaz barbako, edota, Txilen esan ohi den bezala, "asado asado" egoteko aukera izan zuen, baita bertako "Fiestas Patrias" delakoez gozatzeko ere; horietan, herrialdearen independentzia ospatzen dute, irailaren 18aren bueltan.

Txiletarra eta emakumea

Aste barruko ohiturari eutsita, unibertsitatera joan zen iraileko egun normal batez Armendariz. Alabaina, ezohiko egoerarekin egin zuen topo: fakultateko paretak guztiak, goitik behera, paperez estaliak zeuden, eta horietan, gizon baten aurkegia ikus zitekeen, gizon erasotzaile baten aurpegia. "Es un abusador, lo queremos fuera de la universidad", zioen irudiak. "Kaleko jazarpena handia zen", du gogoan

andoaindarrak, "txistu egiten zizuten eta zu geratzeko gai ziren, baita basakeriak esateko ere". Hori dela eta, egonaldiaren hasieran, unibertsitateko koordinatzaileak bakarrik ez ibiltzeko gomendatu zien berari zein bere lagunei.

Dena den, kemen handiko emakumez inguraturik sentitu zen Armendariz: "Protestak zein manifestazioak egiten zituzten; ahaldunduta zeuden, ez zuten beldurrik ahotsa altxatzeko eta beren aldarrikapenak egiteko". Armendarizen egonaldian hasitako gizarte borrokan ere emakumeen indarra nabaria izan zen.

'Txile esnatu da'

Metroko tiketen prezioa garestitu zuen Txileko Gobernuak orain bi urteko urriaren 8an. Hautsak harrotu zituen horrek, baita Txileko herriaren haserrea eragin ere. Hala, hamar egun beranduago, urriaren 18an, egun, oraindik ere bizirik dirauen borrokari ekin zioten herritarrek. Arratsaldea zen, eta unibertsitatean zegoen Armendariz. Bat-batean, koordinatzailearen mezua jaso zuten, eta haren jakinarazpenari men eginez, klasea amaitutzat jo zuten: "Klaseak amaitu zirela esan zigun, baina ez genekien zer dela eta". Horiek horrela, lagun baten etxera joatea erabaki zuten, eta metrogeltokira gerturatu orduko oihiak entzun zituzten: "Metrogeltokiari su ematen ari ziren; manifestazioa egiten ari ziren".

Ikasleak jo ditu borroka horren motoretzat andoaindarrak, baina herri osoaren babesa zuten atzean. "Aski dela esan zuen jendeak. Aski da, ez tiketen igoeragatik, horren atzean dagoen guztiagatik: zerbitzuen (osasungintza, hezkuntza...) pribatizazioa, bizitzen prekariedade nabarmena, soldata eskasaren egoera eta bizitza duinaren prezio garestia". Horrez gain, herritarrenganako poliziaren jazarpena ere salatu nahi zuten; Armendarizek nabarmendu duenez, indigenen kontra, kasu: "Beren lurrak eta ohiturak babesten dituzte, baina zenbaitek ez dute hori begi onez hartzen. Ondorioz, sufrimendua eragiten diete, hil-keta asko izaten dira".

Azkar baino lehen ezarri zuen Gobernuak etxeratze-ordua. Gainera, La Moneda Jauregitik gertu bizita, are handiagoa zen

poliziaren kontrola Armendariz bizi zen auzoan. "Ez zen hasieran ezagutu genuen Santiago de Txile bera". Hala ere, esperientzia bizitzen jarraitu nahi zuten, nahiz eta oso gogorra izan. Beste 9 kidearekin bizi zen etxean andoaindarrak eta ados agertu ziren guztiak protestaren munitatekin; ondorioz, argi zuten, borrokaren protagonistei, txiletarrei, babesa luzatu nahi zieten: "Manifestazioetara joaten ginen, eta gure etxetik gertu negargasa bota orduko, gure etxean babesteko aukera ematen genien herritarrei". Hori dela eta, haika bizipenen berri izan zuten: "Ama gaixo zuen batek, baina bere soldatarekin eta amaren jubilazioarekin ez zuten osasun-arreta jasotzeko adinako dirua biltzen".

Goitik behera eta bat-batean aldatu zitzaion egonaldia andoaindarrari, baina oso baliagarria izan zen beretzat ulertzeko zein nolako boterea duen herri batek indarrak batzen dituen: "Herria etsaia zela esan zuen Piñera presidentek; hor ikusi zen zein boteretsua den herria".

Emakume, gazte eta bidaiari

Joaten ziren lekura joanda ere prezioarekin xixkatu egiten zieten txiletarrek, turista izateagatik. Oro har, taldean bidaiatu zuten neskek zein mutilek, Txilen barrera, baita ondoko herrialdeetan zehar ere. Ez zuten arazorik izan, ez eta soilik neskek bidaiatu zutenean ere: "Hala ere, ezin negon handiagoa sentitzen duzu, errespetua ematen dizulako". Bere burari erronka bat jartzeko beta eman zion egonaldiak: bakarrik bidaiatu zuen Argentinako Iguazu ur-jauzietara. Bertan, askotariko errealitatearekin egin zuen topo, besteak beste, bikote batekin harreman estua egin zuen: "Perukoak ziren, baina bertan ezkontza homosexualak baimenduta ez daudenez, Argentinara joan ziren".

Intuzioari men egiten ikasi zuen Armendarizek, eta azpimarratu du ahalduntzeko aukera paregabea izan zela: "Oso esperientzia onak bizi izan genituen, jende jatorrez inguruta". Horrenbestez, munduari begiratzeko modua aldatu zitzaion: "Irekiagoa naiz orain, eta lotsa gutxiago dut jendearekin harremantzeko. Bidaiatzeko grina piztu dit bizipenak".

MARTXOAK 4 - 24

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

Plateretik baratzera

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra -5 litroka- eta arroza, pasta eta kontserbak -12 ontzika- euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.

EKO



EKO



Jabekuntza Eskolaren ikastaro berriak

Udaberriko ikastaroen berri eman du Andoaingo Udalak. Batukada feminista, sendabelarrak, Mindfulness, autodefentsa, emakumeen talde multikulturala... Ohiko ikastaro ez gain, autoestimua lantzeko ikastaroa antolatu dute



Jabekuntza Eskolaren aurkezpen ekitaldia, Goikoplazan. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Aurreko astean eman zituzten aditzera ikasturte berriari buruzko xehetasunak. Petri Romero berdintasuneko zinegotziak adierazi zuenez, "Andoaingo Jabekuntza Eskola udalaren berdintasun-arloko proiektu bat da, eta emakumeen partaidetza soziala eta politikoa bultzatzea du helburu, jabekuntza prozesuen bidez".

Udalak etxez etxe egunotan banatu dituen eskuorrien bidez, eskaintza guztiaren berri eman du. Ikastaroen zerrendan, berrietasunen artean aipatzekoak dira autoestimua lantzeko ikastaroa, eta, tertulia feministen artean hiru hitzaldi berri: emakumeari eta ezgaitasunari buruzkoa, apirilean; menopausiari eta plenipausiari buruzkoa, maiatzean; eta, emakume eta gazte musulmanen elkarteara, ekainean.

Lehen ikastaroak apirilean Apirilean zenbait ikastarori hasiera emango diote, eta hortaz, interesa duenak izena emateko aukera izango du: Batukada

Lehen ikastaroak apirilean

Apirilean zenbait ikastarori hasiera emango diote, eta hortaz, interesa duenak izena emateko aukera izango du: Batukada

feminista, Mindfulness eta tertulia feminista bat, hain zuzen. **Batukada feminista:** musikara gerturatu eta ondo pasatzeaz gain, beste emakume batzuekin batera musika eginez aritzeko, sormena lantzeko eta autoestima igotzeko.

Egunak: astelehenetan, 18:00-20:00. Apirilean (12, 16), maiatzean (11, 24), eta ekainean (7, 21).

Mindfulness: meditatze praktika eta jarrera. Momentuan presente egotea da, jarrera ireki eta lasai batekin. Estresaren buru-abiaduratik jaisteko tresna da. Bi tailer denbora berean jarriko dira abian.

1. Egunak: astelehenetan, 17:30-19:30. Apirilean (12, 19, 26), maiatzean (3, 10, 17, 24, 31) eta ekainean (7, 14). Euskaraz.
2. Egunak: asteazkenetan, 17:30-19:30. Apirilean, (14,21, 28), maiatzean (5, 12, 19, 26) eta ekainean (2, 9, 16). Euskaraz.

Tertulia feminista:

Apirilaren 15ean, "Emakumeak eta ezgaitasuna". Rosa Ugalde (Elkartu elkarte). Bastero kulturunea. 18:30.

Maiatzean eta ekainean, ikastaro gehiago

Maiatzean eta ekainean, honako ikastaroei ekingo zaie: emakumeen esku, sendabelarrak I eta II (maiatzean); autoestimua lantzen (maiatzean); autodefentsa feminista (ekainean); eta bi tertulia feminista, menopausia- plenipausia (maiatzean), eta, emakume eta gazte musulmanen elkarte (ekainean).

Jatorri anitzeko elkargune multikulturalaren espazioa urte osoan irekita egongo da; hain zuzen, ostiraletan Urigainen bilduko dira (17:00-19:00). Jatorri anitzeko etorkinek astero bildu eta migrazioaren bizipena partekatze eta kultur-aniztasuna lantzeko espazioa da.

UDABERRI HONETAKO BERRIKUNTZA AUTOESTIMUA LANTZEKO IKASTAROA DA

Andoaingo emakumeentzako Jabekuntza Eskola
Escuela de Empoderamiento para mujeres de Andoain



Jabekuntza Eskola. UDALA

Ikastaroen ezaugarriak

- Doakoak dira ikastaro guztiak.
- Haurtzaindegi zerbitzua egongo da (izena eman behar da).
- Izena emateko epea, ikasturtea hasi baino zazpi egun lehenago itxiko da.
- Izena emateko edo informazioa eskatzeko, hiru bide:
 - 943 300 830, luzapena 380-297.
 - berdintasuna@andoain.eus.
 - Andoaingo Udalaren Ataria zerbitzua.

MAIATZEAN ETA EKAINEAN IKASTARO GEHIAGO ANTOLATUKO DITUZTE

APIRILEAN BATUKADA FEMINISTA, MINDFULNESS ETA TERTULIA FEMINISTA ANTOLATU DITUZTE



andoainDARRA
euskaraz



Pepa Bojo Ballester psikologoa eta psikoterapeuta da. BOJO

Zaintzari buruzko ikastaroa abiatuko da apirilean

"Zaintzak eztabaidan: zaindu eta norberak bere burua zaintzea", Pepa Bojo psikoterapeutaren eskutik

Erredakzioa URNIETA

Pepa Bojo inguruotan aski ezaguna den psikoterapeuta da, tailerrak eta ikastaroak ematen eskarmentu handia duen profesionala. "Zaintzak eztabaidan: zaindu eta norberak bere burua zaintzea" izenburuko tailerra egin du Urnietan bertan, Udalaren enkarguz.

Zaintza emakumeen esku egon da, historikoki, horrek dituen ondorioekin: maila fisikoan eta mentalean ez ezik, bizi-rol baten baldintzatzaile eta konformatazaile gisa.

Ikastaroa aurkezterakoan, honakoa da antolatzaileek adierazitakoa: "Zaintzaileen bizitzak senideen premiei erantzutearen ingurukoak dira, eta horrek gainkarga, kezka, erantzukizuna eta erruduntasuna dakartza berekin, eta askotan beren bizitzak bigarren mailan uzten dituzte. Egoera horrek nekea,

ondoeza emozionala, somatizazioak, asegabatasuna edo frustrazioa eragiten ditu, eta, gainera, kasu askotan, interes-gatazken iturri izaten da familia-konformitatearen kideen artean".

Apiriletik ekainera, astean behin Lekaion

Tailerra apirilaren 14an hasi eta ekainaren 9an amaituko da. Guztira bederatzi saio dira, astean behin burutuko direnak. Asteazkeneko elkartuko dira Lekaion, arratsaldeko 14:45etik 17:00etara. Tailerra gaztelaraz eskainiko dute.

Izen-ematea dagoeneko zabalik dago, eta tailerrean parte hartzeko ezinbestekoa izango da Urnietan erroldatuta egotea. Interesa dutenek Bertan herri-tarrentzako arreta-bulegoan edota Urnieta.eus webgunean eman dezakete izena. Tailerraren prezioa 10 eurokoa izango da.

Urrats berria, DBHko eraikinaren prozeduran

Eraikitzeke pleguak onartu ditu Eusko Jaurlaritzak, eta Udalak urrats berriak iragarri ditu

Erredakzioa URNIETA

Herrian bertan eraikiko den Egapeko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe berriaren lanak idazteko eta zuzentzeko baldintza-agiriak onartu dituela adierazi zion astearte goizean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Urnietako Udalarari.

Udalak ohar bidez adierazi zuenez, "pauso bat gehiago ematen da pixkanaka aurrera doan prozesu luze eta zail honen barruan. Ildo horretan, laster aurrerapen berriak izango dira, Udalak oso aurreratuta baitu eraikina egiteko behar diren lursailak lortzeko behar den dokumentazioa, zuzeneko okupazioaren bidez egingo dena, formularik azkarrena baita". Erreakzioen artean, Ibai Iriarte EH Bilduko Legebiltzarreko kideak poza agertu zuen: "Jakin berri dut Urnietako Egape ikastola eraikitzeke proiektua lehia-kerara atera dela. Poztekoa, behingoz gaia mugitzen dela ikustea".

Etxeberriko etxebizitzak

Udalarenak diren etxebizitza sozialak baliatzen hasi dira, astelehen honetan hasita. Bost urtetarako alokairu-kontratuak dira.



UDALA

Pagadi eta konpainia Urnietan

Mikel Pagadi eta Zuhaitz Gurrutxaga aurkezleak herriz herri dabilta "Herri txiki, infernu handi" telebista saioa aurkezten. Euskal Telebistako lehen kateak duen programarik arrakastatsuen da, eta aurreko asteetan Urnietan eta Urnietako biztanleen artean egon ziren. Bisitaldiari amaiera emateko grabaketa egin zuten frontoian. Saioaren emisioa ez da oraindik zehaztu.



UDALA

Lankidetzeta hitzarmenak

Santa Kruz, UKE, Zanpatuz, Izurde, Adarra, Rol, Jostaleku eta Dendaberri elkarteekin lankidetzeta-hitzarmenak berriro ditu Udalak. Sinadura ekitaldira elkarteetako ordezkariak, Jorge Segurado alkatea eta David Rosco Sustapeneko zinegotzia elkartzaren. Alkateak eskerrak eman zizkien elkarte guztiei, burutzen duten lanagatik.



Urnietako
udala

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz etxeko harpidetza-sistema. Andoain urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urnietan, 32 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain.
Tel.: 943 300 732.
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus
@aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.

Kudeaketa, harpidetzak:
Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocío Arias (Andoain), Axun Jauregi, J. Mari Sagaseta (Urnietan).

Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus.
Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zerua Multimedia.



ALIAUAUK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:



ezinbestekoak dira.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

ANALISIA

UNAI ORMAZABAL ANDOAIN

Loa eta txertoak

Orain dela urtebete pasatxo, gizarteak zientzia eta mikrobiologiarengan pentsatzea ez zen inolaz ere ohikoa, baina geroztik gai hauen inguruko berriak areagotu besterik ez dira egin. Honen kausa noski, amalurraren bizidun txikiak –mikroorganismoek– gizadiaren bizitzan izan dezaketen eragin bortitzaren oroigarri den COVID-19a izan da. Azkenaldian zehazki, txertoen gaia da behin eta berriz agertu dena lagunen, familien eta lankideen arteko elkarrizketetan. Zein talderi dagokion lehenago, zein ordenenean izango litzakeen eragingarriena, zenbat erosi dituzten politikariek, zenbat denbora behar izango dugun gaur egungo egoeratik ateratzeko. Beste gairik ez dagoela dirudi.

Hala ere, txertoen eraginkortasunari buruzko elkarrizketa hauetan bada faktore bat gizarteak (eta badirudi, zientzialariek ere) aipatzen ez dutena. Zer pentsatuko zenuke jakingo bazenu badela txertoa jasotzerakoan babesa bikoizten dizun sendagai bat? Eta doakoa dela esango banizu? Eta etxean bertan jaso dezakezula? Zuetako gehienek ez zenidaten sinetsi ere egingo. Aipatzen dudana sendagai hori existitzen da ordea, eta loaldi sakon bat da. Erantzun hau Matthew Walker neurozientzialariaren eskutik datorkigu. “Why we sleep?” (Zergatik egiten dugu lo?) izeneko bere Best sellerrean, loaren garrantziaz eta loaldi on batek dakartzan onurei buruz idazten du; baita lo sakon eta luze baten faltak sor ditzaken gaitz eta osasun arazoei buruz ere. Pertsona bakoitza ezberdina denez norbanakoaren lo eskaerak anitzak dira. Zientzialarien arabera loaldi sakon bat edukitzeko gutxienez 7 ordu egin behar dira lirakete lo. Gaur egungo jendarte gautarrean



Lehen txertoak Euskadira iritsi zirenekoa. IREKIA

ordea, badirudi loak geroz eta garrantzi gutxiago duela (National Health Interview Survey, 2004) eta honen ondorioak garai hauetan inoiz baina latzgarriagoak izatera iritsi daitezke.

Loari buruz orokorrean hitz egingo bagenu, loaren faltak osasunean kalte handiak eragin ditzake, horrela bada, lo falta edo kalitate txarreko loa, obesitatea, gose handiagoa, diabetesa, gaixotasun kardiobaskular eta hipertentsioarekin lotuta daude. Immunitate-sistema ere lo gutxiaren edo kalitate txarreko loaren biktima izan ohi da. Lo kopuru eta kalitatearen, eta immunitate-sistemaren arteko erlazioa ikertzeko osatu diren ikerketa gehienak norabide beretik doaz. Geroz eta lo luzeagoa eta hobeagoa izan, immune-sistema sendoagoa izango da (Bollinger et al., 2009; Cohen et al., 2009; Lange et al., 2003, 2011; Moldofsky, 1995; Prather et al., 2012; Vgontzas et al., 2004).

Adibidez, 7 orduetik behera lo egiten duten pertsonak katarro arrunta bezalako gaixotasun batez gaixotzeko arriskua hiru aldiz handiagoa da, 8 ordu edo gehiago lo egiten dutenean baino (Cohen et al., 2009). Honako ikerketa hauen arabera berdin dio zein adin, estatus sozioekonomiko, arraza, sexu, pisu edota

aurretiko osasun maila zituzten, probabilitatearen areagotzea berbera zen.

Goazen ordea, gaur egun gizartearen interesa berpiztu duen gaira. Ba ote dago loaren kopurua eta kalitatea txertoen erantzun immunologikoarekin lotzen duen inolako ikerketarik? Erantzuna baiezkoa da; ikerketa asko daude, eta erantzunak guztiak norabide berean doaz. Erantzun orokorra eta erraza izango litzateke esatea loa garrantzitsua dela, txertoa jasotzean gorputzak erantzun immunitarioa emateko gaitasun hobeagoa eduki dezan (Bollinger et al., 2009). Ikerketa batean ikusi zuten bezala, lo ematen dugun denbora (txertatu baino hiru egun lehenago eta txertatu ondoren beste hiru egun) geroz eta motzagoa izan, gorputzak txertoari (kasu honetan B hepatitisaren txertoari) esker sortzen duen erantzun immunitarioa (immunoglobulina edo t-zelulen sorreren bidez) orduan eta ahulagoa izango da (Prather et al., 2012). Badirudi erlazioa guztiz graduala dela,

LOA GARRANTZITSUA DA GORPUTZAK TXERTOARI ERANTZUN HOBEA EMAN DIEZAION

beraz, hogeituro minutuko ezberdintasunak ere eragina dauka gorputzak sortuko duen babesaren kalitatean. Aldi berean, pazienteek sei egun horietan izan zuten loaldia murriztu ahala, gaixotasunarekiko babestua egoteko probabilitatea murriztu egiten zen. Batz bestea, zazpi ordu baino gehiago lo egiten zuten pertsonak %95 inguruko probabilitatea zuten gaixotasunarekiko babestuak egoteko, 6 orduetik beherakoek %75eko probabilitatea zuten bitartean. Nolako keak izango genituzkeen txerto baten eraginkortasuna %75ekoa bakarrik izango balitz... Sakondu dezagun hala ere, zein lo motak eragiten duen erantzun immunitarioan eta zenbateraino pairatzen duen erantzun immunitario horrek lo sakon baten gabezia.

Ikerketa zientifikoen arabera, badirudi lo faltak txertaketaren edozein fasean eragiten duela. Txertatu baina lehenago lo falta edo gabezia izaten duten pertsonak, antigorputz gutxiago sortzen dituzte batz bestea (Prather et al., 2020; Spiegel et al., 2002), kopurua erdiraino iritsiz. Ez gara txertatu aurreko gauaz bakarrik hitz egiten ari, baizik eta aurreko bi, hiru edo lau egunez. Aldi berean, ikerketek erakutsi dute, gorputzak ez duela erantzun immunitario hobeago bat emango hurrengo egunetan falta izan zaigun loa berreskuratzen saiatzen bagara. Txertoa jaso aurreko egunak erabakigarriak dira erantzun immunologiko ona eman eta gaixotasunarekiko immunitatea lortzeko. Gauza berbera gertatzen da txertatu ondorengo egunekin; txertatzeko eguneko eta hurrengo egunetako lo kopuruak zein nolako immunitate maila lortuko dugun zehaztuko du (Lange et al., 2003, 2011). Ikerketa hauen arabera, txertatu ondorengo eguneren batean ez bada lo egiten (lan txanda gauekoa

eduki izanagatik, agian) gorputzak sortuko dituen antigorputz sortzaile batzuren kopurua erdiraino jaitsi daiteke. Horrek, immunizatze prozesua moteltzen du eta kasu batzuetan gerta liteke gaixotasunarekiko immunea ez izatea.

Esan beharra dago, noski, aipatutako ikerlanetan ez dela modan dagoen gaixotasunaren txertoarekin probarik egin eta gehiengoak Hepatitis A, B, Influenza eta katarro arruntarekin osatutako esperimenduak direla. Hala ere, aztertutako ikerketekin ondoriozta dezakegu lo osasuntsu bat oso garrantzitsua izan daitekeela txertoen eraginkortasuna ahalik eta gehien handitzeko. Agian beranduegi dator gaueko txandez josita egoten diren eta jada txertoa jasan duten hainbat erizain eta medikuentzat. Baina hobe da berandu esatea, isilik geratzea baino.

Loaldiaren ordu kopurua eta kalitateak txertaketa prozesuan eta gaixotze probabilitatean eduki dezakeen eragina faktoretzat hartzea pausu garrantzitsu bat izan daiteke (Zhu et al., 2021). Bakoitzaren eskuan dago ahalik eta hobekien lo egitea, lo ordutegi finko bat mantenduz, lo hartu baino lehenago aparatu elektronikoen argi urdina saihestuz, alkohola edota kafeina kontsumoa murriztuz. Aldi berean, erakunde publikoen betebeharrak izan behar dira litzateke gizarteari loaldiaren garrantzia azpimarratzea eta beraien herritarrei lo hori edukitzeko aukera ematea. Eguneko eta gaueko lanaldi txandakatuak dituzten langileek, eguneko txandan txertatzeak emaitza positiboagoak ekarriko lituzke, adibidez. Azken finean, txertatzea baino, immunitatea lortzea da helburua. Almohada on bat eta loaldi sakon bat baino bidelagun hoberik ez dago.

Osasun Sailburuak neurriak betetzeko deialdia egin du

Sagarduiaren oharra: "Gutako bakoitzak egiten dugunak, gudan ez ezik, gizarte osoan ere eragiten du"

Errredakzioa ANDOAIN

Europako osasun-agintariak emandako jarraibideak bete ditu Eusko Jaurlaritzak, eta Astra Zenecako txertaketa eten egin da. Gotzone Sagardui Osasun Sailburuak lasaitasun mezua helarazi nahi izan zien herritarrei: "erabakia zuhurtziaren eta prebentzioaren printzipioetan oinarrituta baitago. Orain arte Euskadin Astra Zenecaren 50.474 dosi eman dira, eta ez dago bigarren mailako ondorio larririk".


Egoera oso zailean gaudela azpimarratu nahi izan zuen sailburuak. Egoera kritikoan daudela dio: "Beheranzko joeratik gatoz eta, motelaldi baten ondorioz, goi-ordoki batean gaudela, beraz, zuhur jokatu behar dugu". Berritri beheranzko joerara buelatu behar dela esan zuen, eta hori neurri handi batean herritarren esku dagoela adierazi zuen. Nola? Ezartzen ari diren neurriak betetzeko: "Gutako bakoitzak egiten dugunak,



Gotzone Sagardui, astearterko agerraldian. IREKIA

gudan ez ezik, gizarte osoan ere eragiten du". Aste Santuari dagokionez, Osasun sailburuak zuhurtasunez gozaten ikasteko deia egin du, neurriak manten-


tzen jarraitzeko garaia baita. Osasun-sisteman tentsioa dagoela aitortu zuen, Euskadin osasun-arreta bermatuta dagoela gogoraraztearekin batera.



IREKIA

Jaitsiera ospitaleratze datuetan

Martxoaren 14an soilik 14 lagun berri sartu ziren ospitalean, bezperarekin eta aurreko egunen batzuetan bestekoarekin alderatuta herena da hori. Osakidetzan ospitaleratuta daudenak 224 dira, baina neguko 300eko langaren oso azpitik. Zainketa berezien unitatean 99 lagun daude. Martxoaren 10az geroztik ehun lagunengana azpitik daude, Osakidetzan.



IREKIA

Oinarrizko birsorkuntza-tasa

Egoera epidemiologikoaren aldagai kezagarriena, une hauetan, oinarrizko birsorkuntza-tasa da. 1aren gainetik dago, eta bereziki Gipuzkoan dago daturik okerrera. Martxoaren 11z geroztik kezka eragiten duen tasan dago, 1aren gainetik hain zuzen. Euskadikoa 1,11koa da. Tasa hori jaitea garrantzitsua da, baina azken egunetan igoera handiegia eman da.

Astez asteko garapena

ANDOAIN

- **Martxoak 10-15:** 9 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 120,10.
- **Martxoak 3-Martxoak 9:** 7 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 73,39.
- **Otsailak 24-Martxoak 2:** 4 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 100,08.
- **Otsailak 17-Otsailak 23:** 11 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 140,11.
- **Otsailak 10-Otsailak 16:** 10 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 240,19.
- **Otsailak 3-Otsailak 9:** 26 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 373,63.
- **Urtarrilak 27-Otsailak 2:** 30 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 680,54.
- **Urtarrilak 20-26:** 72 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 887,38.
- **Urtarrilak 13-19:** 61 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 834,00.
- **Urtarrilak 6-12:** 64 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 660,53.

URNIETA

- **Martxoak 10-15:** 3 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 128,85.
- **Martxoak 3-Martxoak 9:** 5 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 96,63.
- **Otsailak 24-Martxoak 2:** 1 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 32,21.
- **Otsailak 17-Otsailak 23:** 1 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 32,21.
- **Otsailak 10-Otsailak 16:** 1 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 144,95.
- **Otsailak 3-Otsailak 9:** 8 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 499,28.
- **Urtarrilak 27-Otsailak 2:** 23 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 837,49.
- **Urtarrilak 20-26:** 29 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 853,60.
- **Urtarrilak 13-19:** 16 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 467,06.
- **Urtarrilak 6-12:** 5 kasu positibo.



Koronabirusari lotutako orainkaria Aiurri.eus gunean.

Egoerari eta pandemiari lotutako albistek.

DATUAK, EGUNEZ EGUN

www.aiurri.eus



Iazko egoera zaila gogora ekartzeko atal berezia.

#2020Koronabirusa2021

PANDEMIA, URTEBETERA

www.aiurri.eus



Mikel Iturria, aurtengo elastiko berriarekin ateratako argazkian. EUSKADI

“Onenen alboan lehiatzea dut gustuko, ez dira menderaezinak”

MIKEL ITURRIA EUSKALTEL-EUSKADI TALDEKO TXIRRINDULARIA

Kataluniako Volta korrituko du astelehenean hasita, eta Euskal Herriko Itzuliko zazpikoan sartzeko esperantza dauka

Andoni Urbistondo URNIETA

Asteartean 29 urte bete zituen Mikel Iturriak. Andaluzia aldean ibili da altuerako prestakuntza egiten, Sierra Nevada, eta Italian korritu ditu egun bateko bi proba, erritmoa hartzeko. Iazko urte berezia ahaztu eta neurri ona eman nahi du 2021ean. Hori egitea zer litzatekeen galdetuta, protagonismoa izatea dio, sailkapen nagusietan edota ihesaldietan izan. Itzuliko laugarren etapa Urnietatik pasako da, eta Iturriak ihesaldiko kide dela pasa nahi luke herritarren aurrean. Getariarainoko joan-etorri lasaia osatu eta gero aritu da solasean Aiurri-rekin.

Martxoaren erdialdean gaude, nola joan da azken urtea, ze egoeratan zaude, nola pasa da azken urte berezia?

Urtebete atzera pandemia leheritu zenean Sierra Nevada nengo altuerako prestaketa egiten. Gero badakizue zer etorri zen: proba asko bertan behera, egutegi txukun bat osatzeko arazoak, taldea Espainiako Vueltatik kanpo geratu zen... Urte berezia, arraroa izan zen iazkoa. Balorazioa kirol esparrutik harago egingo nuke. Esan nahi dut, familia, lagunak, ni neu, osasunez ondo egon gara, ez da gutxi, eta hori jarri behar da balioan. Urte txar batean bi urterako berritu nuen kontratua, Euskaltel sartu da taldean, aurrera pauso bat eman da, eta kirol mailako ondorioak aterako dira bi urte hauek bukatu ondoren. Orain ondo sentitzen naiz. Bi egonaldi egin ditut dagoeneko Sierra Nevada, Kataluniako Volta korrituko dut datorren astean, World Tour lasterketa, eta ondoren Euskal Herriko Itzulia. Ea taldeko zazpikoan sartzan naizen, eta hala bada, ba protagonista izaten saiatu nahi nuke. Bi proba korritu ditut Italian, Laigueglia eta Larciano Sari Nagusia, txispa pixka bat falta zaidala sumatu dut, baina ezer berezirik ez. Lehen lehiaketa egunak dira, eta normala da puntu baten faltan egotea, behin altuerako prestakuntza bukatuta. Erritmoa hartzen joateko lasterketa onak izan dira. Larciano-n gutxigatik ez nintzen sartu 30-40 onenen multzoan, amorrux pixka bat sentitu nuen, baina bide onean nagoela da garrantzitsuena. Voltara ondo iritsiko naizelakoan nago.

Negua garrantzitsua izaten da txirrindularientzat, ezustekorik ez izatea. Ondo joan da?

Bai, azaroan arazo txiki bat eduki nuen, lepauztaia hautsi nuelako, eta hiru bat aste egon nintzen geldirik, baina abendu hasierarako bizikleta gainean nintzen bueltan, berriz, beraz, gauza larririk ez. Negua ondo joan da, otsailean bertan behera utzi dituzten lasterketak iritsi diren arte. Andaluzia, Valentiako itzulia... Niri baino gehiago taldeari egin diote kaltea, helburu garrantzitsuak zirelako taldearentzat. Apirila edo maiatzean korritu ahal izango direla dirudi, beraz gaitzerdi.

Bi ekimen nagusi izango dituzu, Kataluniako Volta eta Euskal Herriko Itzulia, taldean sartzan bazara, lehenengoa, eta bigarrena Espainiako Vuelta.

Bai, nire gustuko plangintza da. Orain hilabete eskas jakin genuen Vuelta korrituko genuela. Bait korrak ginen, baina baieztatu arte ezin gauzak erabaki. Baieztatu zen, denboraldi osoan daukagun erakusleho garrantzitsuena da, eta gustura gaude berriro bertan lehiatzeko aukera izango dugulako. Bloke bat udaberri hasieran izaten da, bigarrena uda bukaeran, tartea badago biak egoki prestatzeko. **Voltan, Itzulian, Vueltan hor egin nahi zenukeela diozu, zer da zuretzat hor egotea?**

Pertsonalki maila onean iristea, ze gaizki bazaude ez du merezi bertan egoteak, musu truk sufritzeko. Maila lortuta, nire lekua bilatzea. Sailkapen nagusiei begira, indartsuenengandik gertu egotea, ahalik eta gertuen, eta ihesaldiei dagokionez, ba protagonista izaten saiatzea. Aldez aurretik ezin da erabaki indarrak batera edo bestera bideratuko dituzun, lasterketak jartzen du bakoitza bere lekuan. **Zerk betetzen zaitu gehiago? World Tour itzuli batean Top 15 edo Top 20 izatea, edo ihesaldi bitartez garaipenak lortzen saiatzea?**

Top 20 bat egitea oso zaila da World Tour lasterketa batean. Erakartzen nau saiatzeak, lortuko banu, nire kirol ibilbidean beste aurrera pauso bat eman dudala suposatuko luke. Trukean, baina, uste dut jendearen begietara oihartzun handiagoa daukala ihesaldietan saiatzea, garaipenaren arrastoan ibiltzea, nagusian 115. postuan sailkatuta ere. Ez da aldez aurretik era-

baki dezakedan zerbait. Akaso ihesaldi batean sartzen saiatzen zara, ez duzu lortzen, eta gero onenengandik gertu helmugaratzen zara. Aldi berean, oilarrengandik gertu egoteak ihesaldiak harrapatzeko eduki dezakezun askatasuna mugatzen du, sailkapen nagusian postu ona baldin baduzu ez dizutelako tarte handirik emango ihesaldia harrapatzeko. Thomas De Gendt banintz, nire pentsaera ezberdina litzateke. De Gendt-ek berak sortzen ditu ihesaldiak, berak erabakitzen du momentua, oso indartsua delako, baina nik ez daukat gaitasun hori. Errepidean ikusiko da zertarako gauden. Bai Volta eta bai Itzulia urteko lasterketa azkarrenetakoak dira, tropela oso azkar joaten da, Paris-Niza eta Tirreno-Adriatikotik datozelako asko, sasoi puntu on-onarekin. Iparreko klasikoak ere ate joka ditugu, eta horrek dena pixka bat gehiago azkartzeb, zailtzen du.

Ihesaldi batzuk harrapatu izan dituzu, batzuetan maila handikoak, baduzu sen berezi hori.

Maila oso handia da, eta ihesaldi bat helmugara iristea oso zaila da. Ihesaldietan sartzea lortu izan dut, eta urteen joan etorrian ba sekretutxoak ikasten dituzu, noren gurpila zaindu, noiz irten, noiz ez...

Tropela beti dabil bizi, baino aurten itxura du inoiz baino azkarrago doala. Ados zaude?

Lasterketa dezente geratu dira bertan behera, eta World Tour taldeek lehen korritzen ez zituzten probak korritzea erabaki dute, txirrindulariak indartsu mantentzeko. Horrek, noski, maila handitu du. Bigarren mailan gauden taldeak, aldiz, lasterketa gutxiago ditugu luzimendurako, baina gai garelako erakuste-



"Txirrindulariok nahiko genuke Euskal Herriko Itzulia jendea bide bazterrean ikustea, euskaldunok zerbaitegatik ezagun bagara gure zaletasun eta animoak emateko indarragatik baita". EUSKADI

ko gogoia, onenen parekoa da. Lehia itzela da, inork ez dio balaztari eragiten, eta egutegia bikoiztu arte, Euskal Herriko Itzulia pasa arte ziztu bizian ibiltzen jarraituko dela esango nuke. Ondoren batzuk klasikoetara bideratuko dira, besteak Italiako Girora, eta horrek tropelera lasaitasun apur bat ekar-

tzea espero dut. Hala ez bada denok oportetara joan beharko dugu maiatzean. Polita da erritmo ero hori, baina lehen kilometrotik helmugara iritsi arte dena disputatzeko grina hori nekagarria ere egiten da. Ihesaldirik ez da oparitzen, edo errazten, dagoeneko, iraganean itzuli handietan gerta zitekeen moduan.

World Tour beste maila bat dela onartuta, haiekin lehiatzea ere pizgarria izango da zuentzat, ezta?

Bai, azken finean haiek ere, eta mugak muga, menderatzeko moduko lehiakideak direlako. Behin bakarrik izan bada ere, nik demostratu dut posible dela. Pertsonalki nahiago dut World Tour mailako proba batean bo-

rrokatu, garaipena lortzeko, World Tour ez den proba batean baino.

Itzuliko zazpikoa ez dago baieztatuta, momentuz, baina esperantza baduzu, zerrenda horretan egoteko. Etapa bat, gainera, Urnietatik pasako da. Nola irudikatzen duzu momentu hori?

Itzuliko irteeran baldin banago herritik ihesaldiren batean pasatu nahi nuke. 2019ko itzulian ere ihesaldi bat harrapatu nuen, Gasteiztik abiatu zena, eta oraingoan zergatik ez. Ibilbidea oso ondo ezagutzen dut, Jaizkibel eta Erlaitzen gora sarri ibiltzen naiz. Ea aukera izaten dudana, eta Urdazubin bezala, asmatu. Urnietatik pasatzen den etapa laugarrena da, sailkapen nagusian tarteak izango dira, ordurako, eta esango nuke ihesaldi bat sortzeko aukera egongo dela. Hondarribian eta Ondarrun bukatzen diren etapak dira egokienak gure moduko taldearentzat, etapa garaipena bilatzeko. Besteetan zailagoa izango da, 5-10 lagun ibiliko baitira egurrean, eta hor tokitxo bat egitea oso zaila izango da.

Afizioz izango ote da Itzulian?

Ez dakit debeku zorrotzik jarriko duten. Irteera eta helmugatan jendea pilatzeko mugak egongo direla jakina da, baina pentsatzen dut mendateetan-eta jendea bertaratzeko aukera egongo dela. Txirrindulariok nahiko genuke bide bazterrean jendea ikustea, euskaldunok zerbaitegatik ezagun bagara gure zaletasun eta animoak emateko indarragatik baita. Txirrindulariok ere eskertzen ditugu animo horiek. Euskaltel-Euskadi Euskal Herriko Itzulia bueltatuko da zortzi urte geroago, eta zer hobe jendearen animoekin bada.

JASO AIURRIKO ALBISTEAK TELEGRAMEN!



- Jaitsi Telegram aplikazio ezaguna.
- Sartu, **Aiurri Urnieta**, **Aiurri Andoain** edo **Aiurri Aiztondo** kanalean.
- Batu zaitez (UNIRME) eta jaso eguneko albiste nagusiak.

**ESKUALDEKO
NORTASUN
HITZAK**

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

KARTELDEGIA: FUTBOLA

FUTBOLA

PREFERENTE MAILA

EMAITZA	
Euskalduna-Allerru	1-2

SAILKAPENA

1	Beti Gazte	10 puntu
2	Zarautz	9 puntu
3	Oiartzun	9 puntu
8	Touring	5 puntu
10	Euskalduna	2 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

Touring-Euskalduna	
--------------------	--

OHOREZKO NESKAK

EMAITZA

Añorga-Urnieta	5-1
----------------	-----

SAILKAPENA

1	Mariño	3 puntu
7	Euskalduna	0 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

Urnieta-Mariño	
----------------	--

GORENGO MAILA

EMAITZA

Urnieta-Hernani	1-1
-----------------	-----

SAILKAPENA

1	Tolosa	3 puntu
4	Urnieta	1 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

Billabona-Urnieta	
-------------------	--

GORENGO MAILA, NESKAK

EMAITZA

S.Tomas Lizeoa-Euskalduna	1-1
---------------------------	-----

SAILKAPENA

1	Mutriku	3 puntu
10	Euskalduna	0 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

Euskalduna-Intxaurdi	
----------------------	--

JUBENIL MAILA, OHOREZKOA

EMAITZA

Euskalduna	Atsedan
------------	---------

ASTEBURUKO PARTIDA

Euskalduna-Otsadar	
--------------------	--

JUBENILAK, 1.MAILA

EMAITZA, 8.MULTZOA

Lengokoak-Urnieta B	3-1
---------------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDAK

Atsedan

EMAITZA, 9.MULTZOA

Euskalduna-Usurbil	0-9
Urnieta A-Kostkas B	2-2

ASTEBURUKO PARTIDAK

Kostkas B-Euskalduna	
Billabona-Urnieta A	

KADETE MAILA, OHOREZKOA

EMAITZA

Euskalduna-Antiguoko	0-1
----------------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDA

Hernani-Euskalduna	
--------------------	--

KADETE MAILA, MUTILAK

EMAITZA, 4.MULTZOA

Urnieta	Atsedan
---------	---------

ASTEBURUKO PARTIDA

Urnieta A-Real Sociedad	
-------------------------	--

EMAITZA, 7.MULTZOA

Urnieta B-Mundarro	1-1
Texas-Euskalduna	2-2

ASTEBURUKO PARTIDAK

Hernani-Urnieta B	
Euskalduna-Danena A	

KADETE MAILA, NESKAK

EMAITZA

Euskalduna-Tolosa	2-2
Urnieta-Danena	2-2

SAILKAPENA

1	Goierri C	3 puntu
2	Urnieta	1 puntu
3	Tolosa	1 puntu
4	Euskalduna	1 puntu
5	Danena	1 puntu
6	Goierri	0 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

Danena-Euskalduna	
Aizkorri-Urnieta	



Beñat Telleria. IBON ERRAZU URIA

Beñat Telleria txapelkun-orde Azpeitiko hiru harrien lehian

Zortzi Arroako Hiru Harrien Txapelketa jokatu zen Azpeitian, aurreko asteburuan

Erredakzioa URNIETA
Urrezko Binakako Aizkolari Txapelketaren 22. edizioarekin batera, Zortzi Arroako Hiru Harrien Txapelketa jokatu zen Azpeitian. Uztarriak bere kronikan jaso zuenez, "Urrak 10.200 kilo jaso ditu guztira, bigarren sailkatu den Beñat Telleriak, berriz, 9.500 kilo, eta Inhar Urruzunok 8.900 kilo. Hiru minutuko txandetan ehun kiloko kopa, ehun kiloko kubikoa eta ehun kiloko bola jaso behar izan dituzte harri-jasotzaileek". Maila onean aritu zen, beraz, Elkezabal Txiki baserriko mutila. Pixkanaka kirol jarduera guztiak martxan jartzen ari dira.



Kadete mailako taldea, Beasaingo probaren ostean. ANDOAINGO

Kadete mailakoak pistan aritu ziren, lehen aldiz

TXIRRINDULARITZA Andoaingo Txirrindulari Eskolak taldekako sailkapena irabazi zuen, Beasaingo lasterketan

Kadete neskek Altsasun aritu ziren. Intza Navarrok amaitzea lortu zuen, erorikoa izan arren.

Kadeteak, Beasain | 2021.3.13

1. Aimar Alarcia (Donosti Berri)
2. Gari Ugarte (Zatika)
3. Jokin Ascaray (Bolintxo)
9. Iker Ugartemendia (Andoain)
10. Markel Etxarri (Andoain)
14. Ganix Ormazabal (Andoain)

Jubenilak, Azpeitia | 2021.3.13

1. Haimar Etxeberria (Buruntza)
 2. Unai Zubeldia (Oriako)
 3. Beñat Carbayeda (Buruntza)
 34. Mikel Goikoetxea (Andoain)
 42. Xabat Alonso (Andoain)
 57. Iker Atxaga Robles (Andoain)
 84. Iker Atxaga Galarza (Andoain)
 85. Peru Alkain (Andoain)
 92. Ibai Omeñaka (Andoain)
- Informazio gehiago: Andoain.eus



Jubenil mailakoak, Azpeitiko lasterketaren irteeran. UZTARRIA



- **Aste bakoitzeko sagardo kaxa bana zozkatuko da.**
- **6 aste, 6 irabazle: Txurruskita (Mizpiradi), Lupita (Zabala), Miren (Gaztañaga), Artxi (Aburuza), Miren (Oianume), Ane (Altuna).**

Erremonte eskola, lehiara

EREMONTEA Loitegi, Eskudero eta Odei eskualdeko kideek Oriamendi txapelketari ekin diote, Galarretan



Artxiboko irudia. ORIAMENDI

Erredakzioa ANDOAIN

Asteburuan hasi zen Erremonte Eskolako Oriamendi Txapelketa. Bertan eskualdeko hiru pilotarik parte hartu zuten. Loitegi urnietarrak eta Goikoe txekak Matxin-Aiestaran bikotea garaitu zuten (40-23). Loitegi eta Goikoe txekak maila handiagora erakutsi zuten partidari; erasoan

fin aritu ziren eta pilota gutxi galdu zituzten.

Eskualdeko pilotarien derbian Irazu-Murgiondo bikotea izan zen garaile Odei eta Eskuderoaren aurka (40-31). Bigarren partida honetan, berriz, norgehiagoka berdindua izan zen, baina akats gutxien egin zituen bikoteak eraman zuten garaipena etxera.

Amaiera arte saiatu zen Urnieta Artola harategia

ESKUBALOIA Txikipoliten aurkako garaipenak azken minutuetan ihes egin zien (33-28).

Erredakzioa URNIETA

Urnieta Artola Harategiak, gutxiatik, baina galdu egin zuen Txikipolit Zarautz taldearen aurka (33-28). Partida garrantzitsua zen beheko postuetatik ihes egiteko, eta partida ona jokatu zuten arren, puntuak kostaldeko taldeak eraman zituen. Nabarmendu beharra dago, amaierararte partida oso berdindua izan zela, 25-25eko markagailuarekin egoteraino. Hala ere, amaierako zarautzarrak gehiago izan ziren, batez ere, fisikoki.

Urnieta Quel Abogados taldeak ere ezin izan zuten garaipena lortu, Ereintzaren aurka (27-23).

Jarduera fisikoa adinekoentzat

DEIALDIA Bertxin elkartearen eskaerari erantzunez, Udalak 65 urtetik gorakoentzat pilates ikastaroa antolatuko du



Udal ordezkariak eta teknikariak, Bertxin elkarteko lehendakariarekin batera. EITB

Erredakzioa ANDOAIN

Oscar Mendo Jarduera Fisiko eta Kirol Saileko zinegotzi ahalduak iragarri duenez, "pilates jarduera astean bitan Arrate pilotalekuko instalakuntzatan eskainiko dugu. Ikastaroak astean bi eguneko eskainiko dira, goizez, eta Andoaingo 65 urtetik gorako edonorentzat izanen dira".

"Covid-19ak zerbait erakutsi badigu, aktibo mantentzearen garrantzia da, adineko pertsonentzako gimnasia ikastaroarekin edo Ibili Andoainekin bezala, eta jarduera horiek ere Udalak antolatzen ditu", adierazi zuen Maide Lainez alkateak.

Interesa duenak telefonoz eman dezake izena: 943 300 147.



SAHARAREN ALDEKO BERTSO SAIOA

Andoaingo Bastero Kulturgunean
Martxoaren 28an, 12:00tan

Sarrerak salgai:
Delgado, Ernaitza, Stop eta Urrats 6€

Eli Pagola
Alaia Martin
Aitor Mendiluze

Iker Zubeldia
Andoni Egaña
Maialen Lujanbio

Gai jartzailea: Unai Ormaetxea

OHARRA:
Emanaldia auditorioan izango da. Segurtasun neurriak hartuko dira.

ANTOLATZAILEAK




LAGUNTZAILEAK





HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 18

URNIETA Ikastaroak

Jabekuntza eskolaren baitan, ikastaro-sorta zabala hurrengo hilabeteetan.

Informazioa: Berdintasun saila.

URNIETA Erakusketa

"Emakumeak kirolari" erakusketa, Iñaki Bergararen eskutik.

Azken eguna. Lekai.

ANDOAIN Erakusketak

Algodonerako emakumeei eskainitakoa, Fanny Alonsoren eskutik. Azken eguna, martxoaren 20a.

Ohiko ordutegia, Bastero.

ASTEARTEA 23

URNIETA Solasaldia

Xochitl Karastorre eta Inaxio Oartzabal hizlari arituko dira Urnietan, motxiladun umeen inguruan. Sare herritarra ekimenak antolatutako ekitaldia da.

19:00, Lekai.

ASTEAZKENA 24

ANDOAIN Ekimena

Nafarroako Hegoaldeko euskararekin elkartasunez, Errigora ekimena. Olio eta bestelako produktuak, eskura.

Eskaerak egiteko errigora.eus gunea.

Azken eguna: Martxoak 24.

OSTIRALA 26

ANDOAIN Kontzertua

Xabier Leteri kantari: Joserra Senperena piano-jotzailea, Xabier San Sebastian kantaria, Quico Pugés biolontxelo-jotzailea eta Beñat Gaztelumendi bertsolaria.

19:00, Bastero.

IGANDEA 28

ANDOAIN Bertso saioa

Hurria Sahara elkarateak antolatuta: Eli Pagola, Alaia Martin, Aitor Mendiluze, Iker Zubeldia, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio.

12:00, Bastero. 6 euro.



Korrikaren azken edizioko argazkia. AIURRI

ANDOAIN, URNIETA Korrikaren aldeko hitzorduen aurreko deialdiak

Andoaindarrak euskararen zein euskaltegien alde egiteko dei egin die AEK-k: "Hitzorduari bultzada emateko, Andoaingo herritarrek eta bereziki, Andoainen azken Korrikan lekukoa eraman zuten taldeetako ordezkariak gonbidatu nahiko genituzke, ekitaldi xumean parte hartzeko. Era berean, etxean gordeta izan ditzakegun Korrikako petoak jantzita eramateko eskatu nahi diogu jendeari".

Martxoak 28, igandea. 11:00, Goikoplaza.

Urnietarrak bideo batekin parte hartzeko deialdia luzatu du AEK-k: "Gure proposamena da bideo txiki bat grabatzea herriko eragile eta herritarrekin. Bideoa horizontalean grabatzea eskatuko dizuegu eta mezu labur bat esan beharko litzateke "Bultza euskaltegiak! Bultza euskara! Martxoaren 28an gu ere Etxeberri plazan egongo gara!". Bideoa helarazteko: 662 338 747.

Martxoak 28, igandea. 12:00, Etxeberri plaza.




Senperena, San Sebastian, Gaztelumendi eta Puges ikuskizuneko parte hartzaileak.

ANDOAIN "Loreak eta Zauriak. Xabier Leteri kantari"

Xabier Leteren kantuak gogoratzeaz gain, bere kantuen eta bere melodien bidez gaur egun bizi dugun jendarteari begiratu dion proposamen bat da Loreak eta zauriak. Bertsoz, kantuz eta hitz lauz 70eko hamarkadatik 2020ra, bizitzatik heriotzara "ni"-tik "gu"-ra eta Xabier Letetik gugana bidaiatuko dugu.

Martxoak 26, ostirala. 19:00, Bastero Kulturunea. 12 euro. 19:00.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Helduentzat:

Pequeños detalles

Lar., 20. 19:00.

Ig., 21. 19:00.

Astel., 22. 19:00.

Haurrentzat:

Raya y el último dragón


Marx. 19-21: 16:30.

Non dago Mikel?

Ostirala, 19: 19:00.

Ez, eskerrik asko!

Marxoak 23: 19:00.



SINOPSIS



Entre nosotras

Zuzendaria: John Lee Hancock. **Aktoreak:** Denzel Washington, Rami Malek, Jared Leto, Chris Bauer, Sofia Vassilieva, Natalie Morales... **Herrialdea:** AEB (2021). **Hizkuntza:** Gaztelania.

Generoa: Thrillerra, poliziakoa. **Iraupena:** 127 min.

Washington eta Leto, aurrez aurre

Sherifak (Denzel Washington) eta poliziak (Rami Malek) elkarrekin lan egin beharko dute, jendea hiltzen ari den gaizkile azkarra gerarazteko. Jared Leto gaizkilearen

paperean ageri da filman, eta antzezpen lan horregatik sariketa nagusietarako izendatu dute. Ikusleak ezinezona biziko du, filma ikusten duen bitartean.

SINOPSIS



Raya y el último dragón

Zuzendaria: Don Hall, Carlos López Estrada, Paul Briggs, John Ripa. **Herrialdea:** AEB (2021). **Generoa:** Marrazki bizidunak fantasia.

Iraupena: 114 minutu. **Ekoizpena:** Walt Disney.

Zinema haurrentzat

Raya gudari bakartiak dragoia aurkitu beharko du, eraitsitako mundua berreraikitzeko.

Ostiraletik igandera, hiru saio eskainiko dituzte asteburu honetan.



IRITZIA

MIKEL ARBERAS ANDOAIN

Gaztetxea, musikaren arnagunea



Azken Sustraiak taldea Andoingo Gaztetxean, joan zen larunbatean. AIURRI

Larunbatak asteko egun berezienak izan ohi ziren; bazkariak, afariak, parrandak eta aurrez hitzartutako kontzertuak. Orain, modu batera edo bestera, "parrandak" edota bazkariak egin, egiten dira. Baina kontzertuak? Galzorian dagoen kultur diziplina da. Galzorian? Bai, galzorian. Lehen, gutxi babesten zen kultura, baina pandemiaren geroztik, okerrera egin du egoerak. Kulturaz ari naizenean, ez ditut soilik gogoan kontzertuak, filmak edota antzerkiak; baizik eta guztia biltzen duen zakuaz ari naiz: beste askoren artean, aktoreak, makillatzaileak, musika eta argiteria teknikariak, garraio lanetan aritzen direnak. Are okerrago daude kultura-arloan modu ez-profesionalean aritzen direnak. Basamortuaren erdian urik gabe utzi balituzte bezala.

Kultura jendarteko zutabe garrantzitsua da. Ezinbestekoa. Goi agintariek badakite hori. Edo ez. Izan ere, ezer gutxi egiten dute laguntzeko. Beraz, beharrezkoa da elkar laguntzea, elkar babestea eta elkar sostengatzea. Hori da, urteetan gune autogestionatuak eta antolatzaile alternatiboak egin dutena.

Goraipatzekoa da, egoera epidemiologiko kaskarra bizi dugun arren, kultura

sustatzeko Andoingo Gaztetxeak egin duen esfortzua. Talde txikiei ahotsa ematen die. Azken Sustraiak taldeari, urtebeteren ostean, aukera bat luzatu zaio. Taldeak biziki eskertu zuen, eta, zer esanik ez, emankizunaz gozatu zutenei.

Taldeak bi kontzertu eman zituen, eta biak normaltasunez egin ziren arren, nabarmendu behar dut ez dudala ulertzen Ertzaintzaren bertaratzea. Lehen saioa amaitu ostean agertu ziren, baina zer dela eta? Izan ere, segurtasun neurriak zorrotz bete ziren.

Esanak esan, Azken Sustraiak taldearen bigarren emanaldia entzutera joan nintzen. Sartu bezain pronto, sarrera jaso eta telefono zenbakia eskatu zidaten, koronabirusa medio. Segituan, bertako arduradunak eseritzeko eskatu zidan, eta komunera joan ezean, aulkitik ez mugitzeko gogorarazi. Gutxinaka, herritar gehiago bertaratu ziren; nor bere lekua hartu eta ia kontzertu osoan ez zen mugitu. Amaieran, launaka irten ginen, multzokatzeak ekiditeko. Antolakuntza, hamarrekoa.

Entzun, arren. Kulturak geure babes guztia behar du. Izan ezagun edo ezezagun. Goikoek babesten ez badute, behekoek sostengatuko dute. Ea apurka ohartzen garen, beste arlo askorekin batera, kultura ere ezinbestekoa dela.



AIURRI

Egunean Behineko irabazlea

"Txurruskita" k eraman zuen lehen saria (Mizpiradi), "Lupita" k bigarrena (Zabala), "Miren" ek hirugarrena (Gaztañaga), "Artxi" k larugarrena (Aburuza), "Miren" ek bosgarrena (Aburuza) eta Anek seigarrena (Altuna). Argazkian, Artxi zizurkildarra. Denboraldia amaitzeko bi aste geratzen dira, eta bi aste horietan sagardoa zozkatzen jarraituko du Aiurrik.

ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732 edo publizitatea@aiurri.eus

- Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

Eskelak Aiurriin: 90 euro

MERKATARITZA

SALKINEN EKIMENA

Aurreztu Andoain txartelarekin

Andoingo Salkin elkartearen ekimen berria. 5 euroko bonifikazioa, erosketari txartelarekin egiten dutenen artean. Apirilaren 30era arte

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Irati Nuñez Larrea
Gure neskatxak martxoaren 13an, 12 urte bete zituen. Muxu asko eta asko denon partetik.



ANDOAIN
Zorionak Clara
Martxoaren 15ean 10 urte egingo dituzu. Zer nolako 10 urte politak! Zure irribarreak kutsatzen gaitu! Muxu potoloak.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri hamaboskarian. Oso erraza da, eta dohainik!

- www.aiurri.eus Zorion agurrak atalean
- **Whatsapp bidez:** 619 16 35 37
- diseinua@aiurri.eus
- **Arantzibia 4-5, behea** Andoain
- **Telefonoa:** 943 300 732

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 20, igandea 21

Gorospa: Rikardo Arregi, 12. 943 592 415. Andoain.

URNIETA

Larunbata 20, igandea 21

Aldabe: Perkaiztegi, 8 (Antziola). 943 336 022. Hernani.

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA

Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000. Ertzaintza: 943 538 840.

ANDOAIN

Udaltzaingoa: 943 300 819. Ertzaintza: 943 538 840.

OSASUN ALORREKOAK

Andoain: 943 006 670.
Urnieta: 943 006 680.
Larrialdiak: 943 461 111.
Osasun Aholkuak: 900 203 050.

"Ez, eskerrik asko!" dokumentala

BERTHA GAZTELUMENDI "EZ, ESKERRIK ASKO!" DOKUMENTALAREN ZUZENDARIA
Gladys del Estal donostiarra Tuteran hil zuen Guardia Zibilak, zentral nuklearren aurka eserialdi baketsu batean parte hartzen ari zela. Dokumentala eskainiko dute Basteron



Gladys, bizikleta martxa batean (dokumentalean agertzen den irudietako bat).

Xabier Lasa ANDOAIN
Gladys del Estal (Venezuela, 1956) Donostiako Egia auzoan bizi zen. Zentral nuklearren, militarismoaren eta etxe-espekulazioaren aurkako ekintzaile

zen. 1979ko ekainaren 3an, Tuteran, zentral nuklearren aurka errepidean eserialdi baketsu batean parte hartzen ari zela, Martínez Salas guardia zibilak bere arma-kulatarekin jo eta

tiro egin zion buruan, gertutik gertura; laster hil zen, ospitalean. Geroztik, Gladys Euskal Herriko mugimendu antinuklearraren ikur bilakatu zen. Gazte donostiarraren bizitza eta bere garai-ko mugimendu antinuklearra eta antimilitarista deskribatzen duen 'Ez, eskerrik asko! Gladysen leihoa' dokumentalaren egilea da Bertha Gaztelumendi. **Zeintzuk dira dokumentala egitera mugitu zaituzten arrazoiak?**

Badira 40 urte eta gehiago Gladys Tuteran hil zutela, ekitaldi baketsu batean parte hartzen ari zela. Harrisburgeko (AEB) zentral nuklearrean gertatu zen istripuak mundu mailan mobilizazioak eragin zituen, eta Euskal Herriko mugimendu antinuklearra Tuteran bildu zen, ondoko Arguedas herrian zentral bat eraikitzeke proiektua egin zuten; Bardeetako tiro eremuari ere ezetza adierazi nahi izan zioten.

Iruditu zitzaigun Tuterako gertakariak ez ezik, Franco hil geroztikako garai historiko hura nolakoa izan zen azaldu beharra zegoela; orduko belaunaldiei oroitarazi, eta gaurko belaunaldi gazteei jakinarazi. Bestalde, premiazkoa ikusi dugu Gladys oroitzeaz batera, aldarrikatzea

aitortza ofiziala merezi duela, estatuaren biktima gisa.

Dokumentala egiteko orduan, garai hura bizitu zuten testigantza pertsonalez baliatu zarete.

Gizarte mugimenduetako (antinuklearra, ekologista, antimilitarista...) aktibista askoren ahotsak jaso ditugu. Izan ere, mugimendu anitza izan zen ordukoa; normala zen herri guztietan komiteak sortzea, autonomiarekin funtzionatzen zuten, nahiz gero koordinazio bat eduki elkarrekin. Frankismoan ezagutu ez zen sormena erakutsi zuten, irudimen handiko garai borrokalaria osatu zuten, egia esanda.

Testigantzen arloan ez ezik, dokumentazioaren aldetik ere ahalegin berezia egin dugu, kontatzen den hori grafikoki adierazgarria egiteko asmoz, eta ikuslearengan ikusmina pizteko asmoz. Horrela, garaiko material grafiko ugari begiztatu liteke dokumentalean, zuri beltzeko argazki mordoa, alegia. Ahaztu gabe Super 8 formatuan egindako zenbait grabazio ere berreskuratu izana. Irudietan agertu nahi izan dugu nork bere oroitzen bidez irudikatzen dugun garai historiko hori: manifestazioak egiteko erak, jendearen janzkerak, Egia bezalako auzoak eta beren kaleak...

Aitortza aipatu duzu. Iruditzen zaizu "Egia, justizia ta erreparazioa", hiru printzipio horiek bete direla Gladysen kasuan?

Argi dago ezetz. Batez ere herri mailan urtero sortu diren omenaldi eta ekimenei esker segitzen du bizirik bere oroitzenak, batik bat. Guardia zibilak protesta baketsu batean erail zuen; epaitua izan zen gertakizuna, baina handik gutxira tiroaren egilea kondekoratu egin zuten,

**Martxoaren
23an Basteron
ikusgai**



Dokumentalaren kartela.

19:00tan eskainiko dute, Bastero Kulturgunean. Bertha Gaztelumendi zuzendaria eta Sabino Ormazabal gidoiaria bertan izango dira. Iraupena: 66 minutu.

UCDren zein PSOE eta Felipe Gonzalezen agintaldietan. Epai-ketan nagusitu zen bertsio ofizialari eutsi diote beti, eta estatuak ez du bestelako ikerketarik bultzatu. Mingarria da hori. Gladys biktimatza hartzea da estatuari dagokion eginkizuna, bizikidetzan aurrera egin nahi badugu.

**"NON DAGO MIKEL?"
DOKUMENTALA
ESKAINIKO DUTE,
OSTIRAL HONETAN
BASTERON**



Trasteleku eta gordelekuen alokairua Urnietan

<p>TRASTELEKUAK</p> <p>44€</p> <p>2 m² / BEZa barne</p>	<p>GORDELEKUAK</p> <p>97€</p> <p>5 m² / BEZa barne</p>
---	--

-  ASKOTARIKO TAMAINA ETA AZALERAK
-  BIDEZANTZA 24 ORDU
-  BARRIDE ETENGABEA

605713127

Igarategi Industrialdea 70. URNIETA.
Bulegoa: Muebles turbe
barne.eus